

Feli Etxeberria: maistra, andereño, katedradun





AURKIBIDEA

Iritzia Oihana Iguaran **3**

Elkarrizketa Jon Padilla,
gasolina-hornigailuari heldurik **4-6**

Arima elikatuz

Maddi Etxeberria **8-9**

Asteko Gaia Feli Etxeberria,
euskal hezkuntzan aitzindari **10-18**

Iritzia Maddi Amiano **19**

Iritzia Asier Aierbe **21**

Erreportajea Eskulturak
Tolosa eta Herbehereak
lotu zituenekoa **26-29**



Azaleko irudia
Jon Miranda

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana euskaraz

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





**OIHANA IGUARAN
BARANDIARAN**
IKERLARIA ETA
BERTSOLARIA

Nahi da bai

Nahi da bai. Eta nahi ez bada, ez da bai. «Ez beti da ez» lelotik gatoz, ezezkoa adierazteko premia eta exigentziatik (eta sekula ez aski, antza). Mugimendu feministaren gogoeta, lanketa eta erantzun askoren ostean heldu da «bai da bai» leloa Espainiako gorteetara. «Bai da bai» esaten denean, beste guztia ezezkotzat ulertu behar dela gogoratzten dugu. Eta oinarri-oinarrizko horrek ere ekarri du bere ezbaia.

Normalizatu dugu jai herrikoien eta aste nagusien aurkezpenekin paraleloan indarkeria matxistaren aurkako protokoloak aurkeztea, festen amaieran indarkeria horri dagozkion balorazioak egitea... eta erasoen albisteekin jaikitzea aje biharamunetan. Eta kontrara, erasorik salatu ez den jaietan, balorazioa txalo zaparradan hartzea ere normalizatu dugu (ez salatzea ez gertatzea balitz bezala). Eta hori ere ez da batere sintoma sana.

Aspaldi ikasi genuen sintoma eta gaitza bereizten. Horregatik, azken hilabeteko prentsa eta sare sozialako eztabaida entzutetsuenean ere, badakigu alde bakarreko musu hura ez dela sintoma bat baino. Gaitza, indarrean dirauen *potroloa* dela, boterea, nagusikeria. Eta hori ere noraino den normalizatua, askoren erreakzioetan (eta batez ere erreakzio faltan) nabaritu da. Sintoma bat soilik izan arren, gaitza indartzeko bide da musu-truk irtetea.

«Bai da bai» lelora heldu gara, baina oraindik erasotuen jarrerak aztertzen dira ahoak esan ez zuen baiezkora hori gorputzean irakurri nahian. Baiezkora

kontsentimendu gisa ulertzen da, ez desio gisa. Euskarak horrela itzultzen du kontsentimendua: baimen, baiezkora, onespén, onarpen, adostasun. Adiera asko dira, baina bat bera ere ez da desirarekin parekagarria. Ondotxo dakigu bakoitzak gure bizitzan inondik ere desio ez genituen zenbat gauza baimendu eta onartu ditugun konpromiso, ondorioen kezkagatik edo (gaizki ulertutako) bakearen izenean.

«Bai da bai» esaldiak urduri jarri du egitura, eta laisaigarri bezain kezkagarri da hori. Lege aldaketa posiblearen aurrean larritzen direnekin pentsatzen dut, ea nola izan lezakeen inork zalantza, berarekin oheratu den norbait gogoz kontra aritu ote den (besterik

«Galdera berria da, zergatik zaigun desiragarri besteak eman nahi ez duena jasotzea»

da gero damutu izana). Nola egin daiteke larrutan zurekin egin nahi ez duen norbaitekin?

Eta aldebakarreko desio hori inposatzeko gai eta are, bestearen desio edo desio falta kontuan ez hartzeko gai egiten gaituen nagusikeriaren bila, neure buruari galdetzen diot zenbat haur txikiren musu jasoko nituen konpromiso emanak, gurasoen eskutara emanak edo egoerak behartuta emanak; emanak baino hartuak direnak, finean. Gaur da halakorik jaso nahi ez dudana eguna.

Galdera berria da, zergatik zaigun desiragarri besteak eman nahi ez duena jasotzea.



«Herriaren amaieran gaude eta horrek asko laguntzen du bezeroekin dugun gertukotasunean»

JON PADILLA

GASOLINDEGIKO LANGILEA

Amasa-Villabona bukaeran dagoen gasolindegia aski ezaguna da herritarren artean; ez bakarrik herrian bertan aurkitzen delako, baita bertan eskaintzen duten tratuatik ere. Jon Padilla bertako langilea da.

Leyre Carrasco

Eguneko hogeita lau orduko zerbitzua eskaintzen du Amasa-Villabonako gasolindegia, eta horren ardura dute bertan lan egiten duten zortzi langileek. Bertako zein inguruko herrietako bizilagunak dira guztiak, tartean, Jon Padilla (Amasa-Villabona, 1989). 16 urte daramatza bertan lanean, eta ondo ezagutzen du bertako funtzionamendua.

Noiz hasi zinen gasolindegian lanean?

2007ko udaran hasi nintzen gasolindegian lanean. Hasiera batean udarako ordezkapen bat egiteko hartu ninduten. Ordutik, udara dezentetan ibili nintzen lanean, eta horrez gain, baja luzeak ere bete ditut. Duela bi urtetik lanpostu finkoa dut.

Zein da zure egitekoa?

Normalean, egunean zehar bi langile egoten gara; bat kutxan eta bestea pistan. Kutxan dagoena bezeroei kobratu, denda zaindu, eta pistaz adi egon behar izaten du. Pistan dagoena, berriz, bezeroei zerbitzatzeko lagundu eta pista txukuna mantentzeaz arduratu behar du.

Zenbat langilek osatzen duzue lantaldea?

Lantaldean zortzi langile gaude. Horietako seiak goizetako eta arratsaldetako txandak egiten dituzte, eta beste bi gauez daude. Noizean behin txandakatzen joaten gara, adibidez, goizetan dagoena hilabete batean gauez egotea tokatzen zaio eta horrela ibiltzen gara.

Gogorra?

Ez, azkenean, hemengo lana ez da batere fisikoa. Gehienbat arreta handiz ibili behar dugula zerbitzatu ostean inork alde ez egiteko.

Gauak izango dira gogorrenak, ezta?

«Norbait edo zerbait arraroa ikusiz gero, gasolindegia ixteko beharra izaten dugu»

Ez nuke esango. Egia da gauetan kutxa barruan egoten naizenez, pista gehiago kontrolatu behar izaten dudala. Norbait edo zerbait arraroa ikusiz gero, gasolindegia ixteko beharra izaten dugu. Hala ere, gasolindegia honetan ez dugu inoiz horrelako zerbait bizitu, ohiko erosleak etortzen baitira, betikoak. Denak elkar ezagutzen gara eta arazorik ez da inoiz egon.

Langileen artean nolako giroa duzue?

Zortzi langile gara eta oso giro atsegina dugu gure artean. Ez dugu inoiz arazorik izan, noizbait, agian, liskar txiki bat egon da, baina betikoa, lan guztietan gertatzen dira horrelako gauzak.

Zer da lan giro horretatik gehien gustatzen zaizuna?

Jendearekin hitz egitea. Adibidez, pistan nagoenean bezeroekin hitz egiten hasi eta entretenituta egoten naiz, eta kutxan nagoenean berdin. Egunerokotasunean ere jendearekin hitz egitea gustuko dut.

Anekdotarik duzu kontatzeko?

Hemen denetik gertatu da. Gogoan dut gasolindegian egon den istripu larriena 2016an izan zela, sekulako sutea piztu zen. Istripu txikiagoak maiz izaten ditugu. Izan ere, kanpotik etortzen diren kamioilariak gasolindegia honek parking edo jatetxe zerbitzua duela pentsatzen dute. Horregatik, asko

gasolindegira sartzen dira, eta hemendik irteteko larri ibiltzen dira, gasolindegia hau oso txikia baita. Ia beti gasolindegiko izkinaren aurka jo eta pare bat aldiz susto txikiak izan ditugu fatxada erori egin dela-eta. Horrelako anekdota asko ditugu hemen, egunero gertatzen dira gauzak.

Iraileko aldapa hasia da, nolako prezioak daude?

Prezioak nahiko altu daude. Oporrak hartu aurreko nire azken lan egunean, uztailaren 21eko asteburuan, adibidez, 1,51 euroan zegoen dieseleko litroa eta abuztuaren 21ean, 1,71 eurora igo da. Hilabete bakarrean 20 zentimoko igoera izan du. Hori udaran normala izaten da, abuztua dela medio, jendeak asko bidaiatzen du, eta atzerritar asko ibiltzen dira hemen inguruan. Orain, irailean prezioak behera egiten duten edo mantendu egiten diren ikusi beharko dugu, hala ere, uste dut ez direla asko jaitsiko.

Zer da beste gasolindegietatik bereizten zaituztena?

Gertukotasunak bereizten gaitu. Lantaldean Villabonako batzuk gaude lanean, eta hemengo herritar asko etortzen dira hona, gehiengoak gure ezagunak. Gainera, herriaren amaieran gaude eta horrek asko laguntzen du bezeroekin dugun gertukotasunean. Izan ere, Villabonako herritarrak ez ezik, inguruko herrietako zein inguruko baserritarrak ere etortzen dira hona. Denok ezagutzen dugu elkar, hona etortzen diren bezeroak ohikoak izaten baitira. Horrez gain, bes-



«Beste gasolindegietan ez bezala, gure gasolindegian langileok zerbitzatzen dugu»

te gasolindegietan ez bezala, gure gasolindegian langileok zerbitzatzen dugu. Besteetan, normalean, bezero bakoitzak zerbitzatu behar du bere burua, baina guk, ordea, langileok egiten dugu, eta hori eskertzeak da.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza. Tolosaldean pertsona bat behar dugu desgaitasuna duen pertsona bat zaintzeko, lan horretan esperientzia duena. Arratsalde 15:30etik 19:30era. Kotxea izatea derrigorrezkoa da. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 685 75 93 34.

Zure iragarki laburra argitaratzeko: deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

ATARIAN jarrita Guterri
eta Urola Kosrako
Hitzza egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 130€ • Atarikideentzat: 65€
Handia: 180€ • Atarikideentzat: 90€
Eskertza: 80€ • Atarikideentzat: 40€

Eskelak • **ataria@ataria.eus** • Tel: **943 65 56 95**

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.



Udako argazki lehiaketa

Epaimahaiaren saria

ARRI STUDIOA

Argazki ikastaroa

Zure maila edozein dela ere,
3 orduko bakarkako ikastaroa
Arri Studioaren eskutik

Aroztegieta kalea 11, Tolosa
arristudioa.com · 943 67 17 17

ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



Lau pertsonarentzako asteburuko menua
Albizturko Ostaturuan

Herriko Plaza, Albiztur · 943 00 59 22

atarikide saria

Arri Studioak
egindako
barruko
argazki sesioa



Aroztegieta kalea 11, Tolosa
arristudioa.com · 943 67 17 17

Parte hartzeko



Informazio guztia



**MADDI
ETXEBERRIA**
DIETISTA
NUTRIZIONISTA
@BEGAONEGIN

Klimaterianoen bidea

Azken hilabeteetan asko irakurri dut ekologi-az. Izan ere, urtarrietik ekainera egin dudana formakuntza baten harira, ekologia eta jasangarritasuna nire pasio berriak bihurtu dira. Orain, nire gau-mahaian beti daude jasangarritasunaren, ekofeminismoaren edo klima aldaketaren inguruko liburuak; eta gaur, gai hau elikadurarekin erlazionatu nahi dut.

Eta askok esango dute: baina zein da elikadurak klima aldaketarekin daukan erlazioa? Ba oso handia, uste duguna baino askoz handiagoa.

Elikagaiak produzitzen diren kate osoak, inpaktu bat dauka lurrarengan. Inpaktua dauka produkzioak berak (lur-sailak erabiltzen direlako, ura, lan-tresnak

eta abar), inpaktua dauka jasotzeak, inpaktua dauka transformatzeak (adibidez, tomateetatik tomate-saltsa ekoizteak) eta garraioak. Eta ikaragarri «xahutzen» den baliabide bat ura da; izan ere, ez da ur kantitate berdina behar kilo bat tomate edo kilo bat xerra ekoizteko (bigarrenak nabarmenki gehiago behar du).

Eta horren harira sortzen da *climatarian* kontzeptua, hain ezagunak ditugun begano, begetariano, flexitariano eta antzeko etiketa-zerrendara batzen delarik. Baina, nola elikatzen da klimateriano bat? Klimateriano baten helburua, bere elikaduraren bidez, ingurugiroan ahalik eta inpakturik txikiena egitea da (kontziente izanez egiten dugun guztiak eta jaten dugun guztiak beti izango duela inpaktu bat). Beraz, saiatzen da bertako eta garaiko produktuak kontsumitzen, eta horretaz gain, saiatzen da animalia-jatorriko produktuak murrizteaz gain (ez du zertan Ora izan behar, baina bai nabarmenki; bere dietaren gehiengoa landareetatik datorrelarik), kontsumitzen dituen horiek kalitate onekoak, bertakoak, ekologikoak... izaten.

Eta zergatik interesatu naiz kontzeptu honekin azken aldian? Ba uste dudalako, beganismora trantsizionatutako pertsona askok iparra galtzen dutela eta





kontzientzia garbiketa bat izan daitekeela askorentzat. Hau da, landare jatorriko produktuek animalia-jatorrikoek baino baliabide gutxiago behar dituzte-nez, jada uste dute inpaktu positibo bat egiten dutela. Eta bai, noski, hala da neurri batean. Baina inpaktu hori euren kontrara orekatzen da Peruko kalabazin ekologikoak, Turkiako datilak edo Mexikoko ahuakateak erosten dituzten unean. Zeren bai, produkzioak baliabideen ustiaketan eragin handia dauka, baina baita garraioak ere.

Gainera, askotan ez dugu urtarokotasunaren kontzientziarik; edo ez dugu pentsatzen guk kontsumitzen ditugun produktuek zenbat kilometro egin dituzten gure platerera iritsi aurretik. Datuen arabera, gure etxean kontsumitzen ditugun produktuek, batzaz beste 4.000 kilometro egiten dituzte, gure platerera iritsi aurretik. Eta egia esan behar badut, gutxi iruditzen zait. Izan ere, noren etxean ez dira ia urtero, neguan, tomateak egoten? Edo kalabazinak? Zeren noski, oinarritzkoak dira gure buru karratuetan dauden menuak prestatzeko...

Beraz, hona gomendio pare

Klimateriano baten helburua, bere elikaduraren bidez, ingurugiroan ahalik eta inpakturik txikiena egitea da

bat. Hasteko, argi izan behar dugu oso zaila izango dela geure buruarekin eta gure balioekin erabat koherente izatea. Izan ere, eragina dute gure egoera sozio-ekonomikoek, geografikoek eta beste hainbatek. Beraz, posible da gu elikadura ekologikoaren aldekoak izatea, baina gure ekonomiak barrera bat izatea bide horretan. Beraz, ez dezagun geure burua latigoarekin jo. Baina gure esku dauden erabakiak hartu ditzakegu. Auzoko frutategian eros dezakeenak, hori egin dezake. Urтарokotasunaren inguruko kontzientzia hartu eta garaian garaiko produktuak eros ditzakeenak ere bai. Ez dakit, gure hondar alea jartzea da, nolabait.

Aipatutako guztia laburbiltzeko, beraz, etxerako lanak. Ikas dezagun zein diren garaiko produktuak, eta saia gaitzen gure erosketa-saskiaren gehien-go, behintzat, bertakoa izaten. Eros ditzakegu ki-

noa, ahuakateak edo mangoak, baina izan gaitzen horrek plaketari egiten dion inpaktuaz kontziente arren. Eta gogoratu prozesu hau ez dela lineala izango (prozesu guztiak bezala), beraz, ahal duzuen egin eta besarkatu zuen kontraesanak.

«Eskola ez da nahikoa gizarte euskalduntzeko, motor sozialik ez badago»

FELI
ETXEBERRIA SAGASTUME
IRAKASLE ERRETIRATUA



Irakaskuntzan eman du bere bizitza profesionala, eta beti hizkuntzarekin lotuta; eskola nazionaletan aurrena, ikastoletan ondoren, unibertsitatean bukatu du bere ibilbidea, katedradun gisa.

Jon Miranda

«Felipa, Felipa, Felipa», esaten zioten txikitan anai-arrebek amorrarazteko. Garai bateko ohitura jarraituz ama pontekoak bere izena, Felipa, jarri zion besotako haurrari, baina berak nahiago izan du Feli izena erabili. Feli Etxeberría Sagastume (Amezketá, 1944), 13 senidetan zaharrena da. Bide urratzaile izatea egokitu zaio, etxean bezala, herrian, ikastolen mugimenduan eta baita unibertsitatean ere. Jakin-minak gidatu du bizitza osoan.

Amezketako Jauregi Txiki baserrian jaio zinen. Donostian eman dituzu urte asko eta orain Asteasun bizi zara. Zein harreman duzu zeure jaioterriarekin?

Harreman handia. Asteasun oso pozik bizi naiz, jende atseginarekin egin dut topo. Donostian ere urte asko eman ditugu eta han ere gustura sentitzen naiz, baina Amezketarekin dudana beste kontu bat da. Han sartzen naizenean, nire artean pentsatzen dut: «Hau xe da nire tokia». Zerbait berezia da niretzako. Pentsatzen dut lehenengo urteetako bizipenek afektiboki asko lotzen zaituztela leku batera.

Txikitako zein oroitzapen gordetzen dituzu?

Umea nintzela Amezketako mundua kalea, baserria eta artzainen artean banatzen nuen. Libreenak eta ondoen bizi zirenak fabrikakoak zirela ikusten nuen, neurre buruan modernoagoak ziren. Eskailera horretan erdi parean zeuden baserritarrak eta ez zitzaidan gogoko artzain umeen bizigiroa, mendian denbora asko egiten zutelako. Pentsa ezazu horiek ziren nire haur denborako burutazioak. Beste datu kurioa zen ha-

rrotasuna sentitzen nuela gure etxea kamioaren ondoren zegoelako. Han egon eta han ibiltzeak kaleko lagunetara gerturatzen gintuen. Gogoan dauzkat apustuak egiten genituela Ergoneko umeekin. Esaten genien haiek baino gauza gehiago genituela guk kalean: udaletxea gurea zela, autobusak ere gureak zirela beharrezko garajeetan sartzen zituztelako, eta medikua eta idazkaria ere kalean bizi zirela. Haiek erantzuten ziguten Ergonen zeudela dendak, fabrika gertu zutela eta eliza bertan zeukatela. Dena den, guri eliza ez zitzaigun hainbeste gustatzen. Elizako giro hura, niretzat behintzat, gauza tristea zen.

Txikia zinela ernatu zitzaizun hizkuntzaren kontzientzia?

Euskara hutsezko giroan hazi nintzen, herri euskaldun batean, eta normaltasunez bizi nuen euskara. Bi hizkuntza bazirenen aurkikuntza pixkanakakoa izan zen. Herriko dendara joan eta irratia entzuten nuenean konturatzen nintzen ez zirela gure hizkuntzan ari. Horrek kuriositatea eragiten zidan. Gogoan dut asko gustatzen zitzaidala beste hizkuntza hori ere, gutizi moduko bat zen, ez neukan eta eduki nahi nuen. Oraindik ere irudikatzen dut neure burua etxeko salan geneukan ispilu handiaren aurrean erdaraz ariko banintz bezala jolasten. Tutik ez nekien gaztelaniaz, baina imajinaziozko hotsak atera eta «*está bien, está bien*» eta horrelakoak esaten nituen, horiek baitziren erdaraz nekizkien hitz bakarrak. Aitak ere ez zekien erdaraz ondo, baina ez zitzaion batere axola eta jardun-

ten zuen erdaraz, nola hala. Esaten zigun entenditzea eta adieraztea zela inportantea eta ez genukeela lotsarik eduki behar gaztelaniaz hitz egiteko.

Herriko eskolan izan al zenuen gaztelanian murgiltzeko aukera?

Eskola handira iritsi arte ez. 3-4 urterekin eskola txikia esaten genion hartara joaten ginen. Artean haur hezkuntzak ez zuen ofizialtasunik eta edade horretan modu partikularrean egoten ginen Kontxesi ize-neko maistra batekin. Uste dut karlista zela emakume hura. Gozo tratatzen gintuen. Neska-mutilak elkarrekin joaten ginen eskolara eta euskaraz egiten zigun, maistra euskalduna baitzen. *Cara al sol* abestiaren antzeko zerbait kantatzen ote genuen dut gogoan, baina baita euskarazko *Nere ama txit laztana* bezalako abestiak ere. Gero, eskola handira joan nintzenen, han bai, gaztelaniarekin egin nuen topo. Baina beste aurkikuntza tipo bat izan zen hura, negatiboa.

Estu hartu al zintuzteten eskola handian?

Estu edo. Hasierako bi urteetan asko sufritu nuen irakasleagatik. Oraindik ere haren aurpegia iltzatuta daukat gogoan. Zorrotza zen, oso emakume gogorra, niretzat behintzat. Beste bati galdetuz gero, agian esango dizu maistra ona zela, baina niri beldurra eragiten zidan. Hizkuntzan oinarritua da daukadan oroitzapen txarra. Guk euskaraz baino ez genekien eta irakasle horrek, euskalduna izanagatik, gaztelaniaz egiten zigun. Gogoan dut nola egiten genituen laboreak arratsaldeetan, trapu bat hartu eta hura brodatzen jartzen gintuen, errenkadan jarri eta berak esaten zigun zer egin behar genuen. Okasio horietako batean «*enhebra la aguja*» esan zidan eta nik ulertu ez. Askotan eskatuko zidan, noski, eta ni geldi-geldi. Hark interpretatuko zuen bere kontra joateko nire egoskorkeria zela eta ikusgarritzko zaplaztekoak eman zizkidan, izugarriak. Beldurra hartu nion eta ordutik aurrera bere aurrean negarrez egoten nintzen beti. Geroz eta negar gehiago egin, or-

«Euskaraz baino ez genekien eta irakasle hark, euskalduna izan, eta gaztelaniaz egiten zigun»

duan eta gehiago zigortzen ninduen berak. Oso esperientzia gogorra izan zen. Gerora gogoeta bide izan dut orduan gertatutakoa, pentsatu izan dut ez dela hizkuntza bakarrik elkartzen gaituena, solaskidearen jarrerak ere baldintzatzen duela harremana. Hori esateko oinarritzen naiz maistra hark Amezketa-tik alde egin ondoren etorri ziren irakasleekin izan nuen harremanean. Maistra berri haiek ez zekiten euskaraz, erdara hutsean egiten ziguten, baina harreman afektibo estuagoa nuen beraiekin. Emakume politak zirela pentsatzen nuen: ezpainak pintatuta, azkazal politak, gazteak ziren... beste estilo bateko emakumeak ziren, alegia. Haien begirada bakarrik nahikoa nuen hobeto sentitzeko. Lasaiago egoten nintzen eta orduan sentitzen nuen ikasteko gogo, haiek esandakoa ondo betetzeko nahia.

Irakasle haiek ikusita sortu zitzaizun irakasle izateko bokazioa?

Neurri batean bai. Nola nire maistra berri horiek hain politak ziren eta nola haiekin afektiboki gustura sentitzen nintzen, esandako lanak batere ahaleginik gabe egiten nituen. Bestalde, etxeko giroa ere aldekoa nuen. Ez genuen giro zapaltzaile edo autoritarioa bizi eta gurasoek guk egiten genituen gauzak baloratzen zituzten. Ikastea gauza polita zela esaten zigun aitak. 9-10 urte nituela ama etorri zitzaidan ikasi egin behar nuela esanez. Maistra batek eta herriko apaizak esana zioten balio nuela ikasteko. Ilusionatuta zegoen ama, nahiz eta nik kezka banuen. Lehenengo alabarekin konprometitzen baziren atzetik zetozen guztiekin zer egin? Baserria pikutara joango zela ikusten nuen. Hala ere, amak argi esan zidan: «Lasai umea, aterako gara

aurrera». Herrian baziren bi neska Gasteiz inguruko kolegio batera joanak, barneko ikasle, eta hara eramanez ninduten. Ez nuen, ordea, bertan asko iraun.

Ez al zeunden gustura?

Ikastea gustuko nuen, baina gazte-txoa nintzen oraindik eta etxeko umeak faltan nituen. Setatsua nin-



Feli, Lazkaoko ikastolako irakasle eta ikasleekin. **IKASTOLATIK ZUMARDIRA LIBURUA / AMEZKETAKO UDALA**

tzen gero. Gurasoek nirekin pazientzia handia izan zuten eta Tolosako Jesuitinetan ikasteko bidea egin zuten, baina han ere ni disgustura. Nire lehia zen handik nola alde egin; batetik eskapo egitea lortu nuen, bestetik ere alde egiteko modua bilatzea zen nire enpeinua. Ate ondoan jarri eta soinu guztiak iruditzen zitzaizkidan Amezketakoak. Letxeroaren kotea ez bazen, estankeroaren autobusa izango zen. Pentsatzen nuen: «Hemendik korrika batean atera, autobusari alto egingo diot eta han sartuta joango naiz etxera». Zelatan egoten nintzen kolegioko atezaindegia noiz egongo zabalik. Azkenean, karta egin nien gurasoei handik atera nintzaten eskatuz. Aita nire bila etorri eta etxera eraman ninduen, baina Amezketara iritsi bezain pronto izugarritzko erreduntasuna sentitu nuen. «Zer egin dut? Orain nola azalduko dut herriaren aurrean zergatik alde egin dudan? Ni nintzen kolegio batetik bestera zebilen ume hura, ikasle onaren fama zuena». Gurasoek berriro ere ir-

tenbidea bilatu zuten niretzako. Batxilergorako sarbidea prestatu nuen herrian Oñatiko irakasle batekin, modu partikularrean, eta batxilergoa Tolosan egin nuen gero. Aprobatu eta argi nuen irakasle izateko ikasiko nuela. Donostiako eskolan eman nuen izena eta han egin nituen ikasketak.

Zer moduzko esperientzia izan zen zuretzat irakasle ikasketak egitearena?

Oso-oso gustura aritu nintzen. Ez nuen ikasketak egiteko zailtasunik sentitzen, ezta konplexurik ere euskalduna izateagatik. Frankismo garaian egin nituen ikasketak eta badakit irakasle gehienak zein joeratakoak ziren. Euskararik ez ziguten egiten eta bertako gaiak ere ez genituen jorratzen, baina ni moldatzen nintzen interesatzen zitzaizkidan mezuak jaso eta nire ekartzeko. Askok gustatzen zitzaidan, esaterako, nola esplikatzen zigun irakasle haietako batek gramatika. Nire artean aritzen nintzen gero, euskaraz hori nola egiten ote zen pentsatzen.

Ikasketak amaitu eta berehala hasi al zinen irakasle?

Bai. Irakasle eskolan aukera eman ziguten nahi izanez gero eskola batean lan egiteko. Ikaskide gehienek nahiago izan zuten oposizioa prestatu irakasle postua ateratzeko eta Iruñeko eskola batera joan ziren. Asko ordaindu beharra zegoen eta nik etxekoak ez estutzeagatik nahiago izan nuen lanean hasi eta oposizioak nire kabuz prestatu. Nekane Iturbe ikaztegi-tarra eta biak Elgoibarko Alzola auzora joan ginen irakasle. Hango bainuetxeko parte batean moja italiar batzuk kolegioa zuten eta bertan hasi ginen irakasle. Nik askorik ez eta frantsesa irakasten nien, baina gazteak ginen eta lotsagabe xamarrek. Eskolak ondo prestatu eta han presentatzen ginen. Goizean lan egin eta arratsaldean oposizioak prestatzen genituen gure kabuz. Fede handirik ez genuen ikusita gure ikaskide izandakoek jardun osoz ari zirela prestatuntza egiten Iruñean. Baina azterketara aurkeztu eta aprobatu egin genuen. Hura poza. Munduko erregina sentitu nintzen. «Eskola bat izango dut, nirea», esaten nuen nire artean.

Nora destinatu zintuzten?

Errezilgo Erdoizta auzora, mendiko eskola batera. Nik txikitatik banekarren kezka hori. Baserriko umeei eta zailtasunak zituztenei laguntzeko gogoia sentitzen nuen, segur aski akordatzen nintzelako umetan eskolan pasa nuen esperientzia txarrarekin. Horretarako toki aproposa zen Erdoizta. Hango umeak baserriar puruak ziren, euskaraz baino ez zekiten, eta erdaraz gutxienekoa ere ez zuten ulertzen. Dena den, kosta zitzaidan han sartzea. Nik umeei gaztelania erakusten ahalegintzen nintzen euren berezko hizkuntzatik abiatuta. Igande goiz batean gurasoak eza-gutzeko bilera bat egin nuen, eta kargu hartu zidaten haien umeei euskaraz egiten nielako. Umeei gaztelania erakustea nahi zuten. Orduan azaldu behar izan nien, horixe bera egiten saiatzen nintzela, euskaraz azaldu gero, erdarara pasatzeko. Konbikzio osoa nuen horrela izan behar zuela.

Elebitasunerako kezka hori betidanik izan duzu.



«Ezin nuen beste euskaldun bat zaplaztekoa jasotzen utzi, gaztelaniaz ez jakiteagatik»

Bai. Ni elebiduna izan naiz betidanik, eta beti izan dut gogoa elebidun ona izateko. Erdoiztako guraso haiek gaztelania hizkuntza prestigiodun bezala zeukaten, eta horregatik nahi zuten euren umeek erdara ikastea, baina nire ahalegina zen euskaldunak izaten segi zitezen, gaztelania jakinik. Kontrara, urte batzuk beranduago hori defendatzea ez zen gauza erraza, gaztelania baitzen egin behar ez zen hizkuntza, euskara indartu behar bazen. Neurri batean egia da hori, baina erdaldunek euskaraz ikasiz gero haiek bi hizkuntza eduki eta gu bakarrarekin konformatu? Ez bakarrik gaztelania, geroz eta hizkuntza gehiago jakin, orduan eta hobeto izango denaren konbentzimendua dut. Beti saiatu izan naiz horretan. Nik sei urterekin zaplaztekoak jaso banituen gaztelaniaz ez jakiteagatik, ezin nuen beste ume euskaldun bat zaplaztekoa jasotzen utzi.

Hizkuntzarekiko kezka horrek eraman al zintuen ikastolen mugimendura?

Erdoiztan nenbilela, Hiazinto Fernandorena Setien apaizaren gutun bat jaso nuen bilera baterako gonbita eginez. Duda eduki nuen joan ala ez, baina azkenean gerturatu nintzen. Bileran esan ziguten euskarak behar zituela irakasle euskaldunak. Eskola nazionalek bazituztela beren maistra eta maisuak eta irakasle euskaldun berriek indar guztiak ikastoletan jarri behar genituela. Konpromiso batean jarri ninduten, ez bainituen nire Erdoiztako umeak utzi nahi. Zalantza horiekin nenbilela etxekoei galdetu nien eta proba egin beharko nukeela erantzun zidaten. «Zer galtzen duzu?», galdetu zidaten gurasoek. Aurrerago ere irakasle postua hor edukiko nuela esan zidaten. Herriko Batiste Galartza lagunak, oso euskaltzale eta aurrerakoia, oso borrokalaria zenak eman zidan azkeneko bultzada: «Duda egiten al den? Segizan emakumea, eta sartu hadi hor». Kongregazio batean sartzea balitz bezala.

Ikastoletan aritu aurretik formazio berezitua jaso zenuten.

Bai. Johannes Etxeberri andereñoen erresidentzian sartu ginen 1964an, Pakita Arregi zuzendari. Lehenengo promozioiko ikasle izan nintzen. Zortzi ikasle aritu ginen, hiru Magisteritza eta ondorengo oposizioak irabazita eduki arren, ikastolarako bidea hartzea erabaki genuen. Esaten ziguten ez zela

nahikoa guk irakasle eskolan ikasitakoa, eta prestakuntza berezia egin behar genuela ikastoletan aritzeko. Hasieran mesfidantza pixka batekin begiratzen nien: «Hauek zer jakingo dute nik dakidanaz edo ez dakidanaz». Niretzat, herrenak herren, balio bat bazuen karreran ikasitakoak. Erresidentzian emandako urtebeteko esperientziaren ondoren, eta gure arteko elkarrekintzari esker, konbentzimendua sendotzen joan zitzaidan: eskola on bat zen ikastola, berria, diferentea eta pedagogia berritzaileak erabiltzen zituen. Elbira Zipitria izan zen guzti horren gidaritzan aritu zena, eta jakin zuen teoria berriak praktikan aplikatzen. Uste dut balore hori aitortu behar zaiola. Hark formatutako irakasleekin egin genituen praktikak ikastoletan. Nik, adibidez, Mari Karmen Mitxele-narekin egin nuen praktikaldia. Johannes Etxeberri erresidentzian, berriz, euskal gaiak ikasi genituen. Euskara batuaren premia ere gogor azaldu zen.

Bertarik bertara ezagutu zenuen zuk. Zer moduzko tratua izan zenuen Elbira Zipitriarekin?

Nik beldurra nion. Ni, sobera, ume beldurtia nintzen irakasleekin, aurreneko maistra horrekin beldurrez akabatzen egoten nintzen eta Elbirarekin berdin. Aiurri handiko emakumea zen. Oso garbi zuen zein zegoen bere aldean eta zein ez. Beldur handiak zintuen. Testuingurua ere ulertu beharra dago: ETA sortu berria zen, borroka ideologiko handiak zeuden eta arrisku bezala ikusten gintuen gu, gazteagoak ginenak. Zalaparta besterik ez genuela sortuko uste zuen, eta berak aurreko urteetan sortutako hori guztia bertan behera eroriko zela. Irakin egiten zion barruak kontu horrekin. Beldur horiek areagotu

egin zitzaizkion ikastolak herrietara zabaltzearekin batera.

Zuek herri txikiagoetako ikastoletan hasi zineten irakasle.

Bai. Nekane Auzmendi Pasaira, Nekane Iturbe Elgoibarrera, eta ni Lazkaora joateko izendatu ninduten. Onartzen genuen esandakoa, bagenekien antolakuntza goi mailagoko bat zegoela, non gurasoek eta herritar euskaltzaleek bat egiten zuten. Nik sentitzen nuen leiala izan eta esandako lekuetara joan behar genuela, beharrik handiena zeukaten tokietara.

Klandestinitatean jardun behar izan zenuten. Jaso al zenuten errepresiorik?

Beldur izaten ginen eskola nazionalekoek denuntziatuko ote gintuzten. Ikastolan aritzeagatik fitxatuta geunden, eta ni behintzat, pare bat alditan eraman ninduten Tolosako komisariara deklaratzera. Hala ere, klandestinitatea ahaztu egiten zaizu hor burubelarri zabiltzanean eta are gehiago hainbesteko babesa sentitzen duzunean. Gure komunitatean onartuak ginen eta harro sentitzen ginen lan hori egiteagatik. Eskola on bat egiteko erantzukizuna sentitzen genuen. Gure ahalegina zen herrian txertatutako eskolak sortzea. Irakasleok, beraz, herriko beste hainbat eginkizunetan ere hartzen genituen konpromisoak. Nik, Amezketan, adibidez, Oargiren sorreran hartu nuen parte. Gero Lazkaon egon nintzenean, euskara irakasteko jende nahikorik ez, eta astean bitan joaten nintzen gau eskoletara.

Asko zabaldu al ziren ikastolak sasoi hartan?

Perretxikoak bezala. Ikastola bat sortzerako aldamean beste bat nola sortu pentsatzen egoten zen jendea. Ikastolek bazuten prestigio bat. Idiazabalera, Segurara, Mutrikura, Ataunera edo Ormaiztegiara joan izan nintzen ni gure ereduak erakustera, askotan, ikastolako umeak alboan hartuta. Gure diskurtsoa hitzetan bakarrik gera ez zedin egiten genuen. Bertatik bertara erakusten genien herritarrei nola

egiten genuen lan umeekin, beldur asko izaten baitzuten gurasoek. Ikastolatik ongi prestatuak aterako ote ziren zalantza egiten zuten. Guk konbentzimentuz esaten genien, beste eskoletatik baino prestatuago aterako zirela umeak ikastolatik.

Zertan zen berritzailea ikastolen ereduak?

Kontuan hartu behar da gure aurretik sortutako lehenengo ikastola haiek, asko jota, egunean bizpahiru ordutan ematen zituztela eskolak, horrela errazagoa zelako ikastolak kamuflatzea. Guardia Zibila edo inspektziokoak azalduz gero, beti zeukaten esatea kateki tokia zela hura. Gainerako orduetan, umeak musika edo hizkuntzak ikasteko klase partikularrak jostzen zituzten. Herri txikiagoetan, ordea, hori ez zen bideragarria. Umeak egun osoz eduki behar izaten genituen. Horrek egoerara moldatzea eta ikaslearekin harremana aldatzea ekarri zigun. Kontua ez zen umeek guk esandakoa egitea. Haurrekiko tratua osooso garrantzitsua zen, saiatzen ginen testuingurua kontuan hartzen, zigorrik ez erabiltzen, eta pedagogia memoristiko eta tradizional hori alboratzen. Guretzat euskaraz aritzea bezain garrantzitsua zen eskola berri eta modernoa egitea.

Zeintzuk ziren zuen erreferentziak garai horretan?

Frankismoan Rosa Sensat maisu-maistren eskolaren sortzaile izan zen Marta Mata erreferentzia handia zen guretzat. Gerora, Katalunian haiekin egoteko aukera izan nuen eta lan izugarria egin zuten. Pedagogia berritzailea ez genuen Euskal Herrian sortu, ikastolek iturrietara jo genuen eta teoria horiek gurera egokitu genituen. Ni irakasle eskolan aritu nintzen garaian ikasi nituen Freinet, Montessori edota De-

croly bezalako autoreak, baina ez nekien haiek esandakoa interpretatzen. Esango nuke ikastolen mugimenduarekin ikasi genuela horien esanak praktikara eramaten.

Irakasle eta ikasleentzat materiala prestatzen ere jardun zenuen.

Bai. Gauza batek bestera eraman ninduen. Ezkondata Lazkaotik Do-

«Guretzat euskaraz aritzea bezain garrantzitsua zen eskola modernoa eta berria egitea»



Ezkontza egunean amezketar umeez inguratuta.

nostiaira etorri nintzen eta bertan nenbilen irakasle. Piageten teoriaren oso zalea nintzen eta pentsamen-
dua lantzeko ariketak lantzen hasi nintzen nire ikasle-
ekin, bolada batean Kaialde ikastolan, frantziskota-
rrek Donostiako Alde Zaharrean sortu zuten ikaste-
txean. Izugarri gozatu nuen. Eredu hori zabaltze
aldera, besteak beste, 1977an *Matematikaren hasta-
penak* izeneko liburuxka sortu nuen, Koro Zumalabe
matematika irakaslearen laguntzarekin. Umeei mate-
matika nola erakutsi azaltzen genien irakasleei alde
batetik, baina bestetik, materiala ere sortzen genuen
umeei ariketak lantzeko.

Esperientzia horrek bultzatu al zintuen Pedagogia ikasketak egitera?

Ni aipatutako autore guzti horien enamoraturia nin-
tzen. Gehiago ikasi behar nuela pentsatu nuen. Gus-
tura ikasi nuen Pedagogia, baina berehala etorri zi-
tzaidan gogoia Psikologia ikasteko. Ez dakit nola kon-
pontzen nintzen, ordurako bi ume banituen eta.
Karrerak puskaka ateratzen nituen, udan ikasita eta
oporraldiak baliatuta. Pentsatzen

dut, jakin-mina ikaragarria nuela
eta horrek bultzatuta aritu nintzela.

Nola sortu zitzaizun unibertsitate- an irakasle izateko aukera?

1979an izan zen. Hots egin zidate-
nean hasiera batean ezezkoa esan
nien. Nola ni unibertsitatean? Ni
gustura nenbilen nenbilen tokian.

«Klandestinoki
ikastolak sortzen
ibili eta gero,
unibertsitatearen
eremu ofizialera
pasa nintzen»

Unibertsitate publikoa sortu berria zen eta osatzeko
zegoen oraindik. Fakultatean Filosofiaren adarrean
bi irakasle zituzten, Psikologian beste bat eta Peda-
gogiaren arloan ardura hartuko zuen norbait falta zu-
ten. Ni ikusten ninduten horretarako aproposa. Azke-
nean baiezkoa eman nien baina esan nien ikastolekin
nuen konpromisoa ezin nuela egun batetik bestera
utzi. Aurreneko urte hartan bi laguntzaile izendatze-
ko aukera eman zidaten, eta horrela abiatu genuen
bidea.

Berriro ere hutsetik abiatu beharra.

Bai, beti tokatu izan zait aurrekoarekin puskatu eta
berriro abiatzea. Badirudi hori izan dela nire desti-
noa. Kasu honetan banuen bertigoia, ofizialtasunak
errespetu handia eragiten zidalako. Pentsa, klandes-
tinitatean ikastolak sortzen ibili eta gero, unibertsita-
te publikoaren eremuan aritzera pasa nintzen. Hasie-
ra batean arrotza zitzaidan mundu hori guztia. Gai-
nera, ezerezetik sortu behar izan genuen guztia,
plangintza guztiak egin, beste unibertsitateekin ha-
rremanak eduki, mintegiak antolatu eta ministerioa-
rekin borrokan aritzea egokitu zitzaidan.

Borroka handia egin behar izan al zenuen fakultate- an Hezkuntzaren pedagogiaren espezialitatea sor- tzeke?

Pixka bat bai. Gogoan dut nire tesi zuzendari izanda-
ko Miquel Siguan i Solerri hots egin niola nire asmoen
berri emateko. Zera erantzun zidan: «Atrebentzia be-
har du pertsonak horrelako proposamena egiteko.
Zer uste duzu dela Espainiako Hezkuntza Ministe-
rioia? Ez dizute onartuko, asko jota, doktoretza ikas-
taro batean horrelakoren bat antolatzea eskatzen

baduzu, pasako dizute, baina Peda-
gogiaren barruan hizkuntzarekin lo-
turiko espezialitatea bat zabaltzea? Ametsetan zabiltza». Hala ere, nahi
banuen saiatzeko aholkatu zidan
eta azkeneko onartu egin zidaten.
Lorpen handia izan zen. Katedrara-
ko oposizioa egin nuenean epaima-
haikide batek arrazoi zuela pentsa-

tuko dut azkenerako. Hark esan zidan: «Ez dakit meritua ote den zurea, baina nahi izan duzun hori eta gustuko duzun hori egin izan duzu bizitza osoan».

2017an hartu zenuen erretiroa. Faltan botatzen duzu unibertsitatea?

Jubilatu nintekeen lehena-go, baina gustura nenbilen unibertsitatean. Orain beste bizimodu bat daramat. Aktibo ez banago ez dut horrelako loturarik mantentzen egunerokotasuneko gaiekin. Nik jendearekin eta egiten dudan horrekiko kontaktu zuzena behar izaten dut. Lagunekin eta jendearekin egotea gustatzen zait. Hemen Asteasun Xiri-Miri elkartearen nabil eta taldeko kide gisa *Mundu bat Asteasun* ekimenean hartzen dut parte. Lantalde ezberdinetan banatu gara eta nik hizkuntzarenean hartzen dut parte. Nire arloarekin harremana edukitzea ahalbidetzen dit horrek.

Ikastolak sortzen hasi zineten garaian gaur egungo egoera erakutsi izan balizute sinetsiko zenukeen?

Orduan ezinezko bat bezala ikusiko nukeen. 2023ko egoera hau amestu ere ez genuen egiten. Uste dut lorpen handiak egin direla, orduko eskola publikoa eta gaur egungoa ikusi besterik ez dago. Eskolari bere lekua eman behar zaio. Askotan kritika egiten da, baina urteotan asko egin dugu. Eskolaren bidez euskara asko zabaldu da. Gertatzen dena da eskolaren jartzen dela erantzukizun guztia. Eskola ez da nahikoa gizarte oso bat euskalduntzeko motor sozialik ez badago. Mugitu behar dugu, gizartearen txertatzen ez den hizkuntza bat beti galbidean egongo



baita. Uste dut oraindik militantzia eskatzen duela euskarak.

Bokaziozkoa al da irakaslearen ofizioa?

Ez dakit, baina profesional ona izan nahi baduzu eduki behar dituzu kezka eta arreta. Norberak bere lanarekin gustura aritzea eta bere lana baloratzen jakitea da inportantea. Irakasleak sinistu behar du zerbait egiten ari dela, lehenik eta behin umearen alde. Lanbide honek baditu arriskuak eta parametro batzuk finkatu eta aldaketarik gabe horretan segitzea izan daiteke arrisku horietako bat, umea kontuan hartu gabe. Eskolak markatu egiten ditu umeak, baina

markaje hori ez da beti positiboa izaten. Dibertsitateaz asko hitz egiten da, baina dibertsitatea ikasgeletako bakoitzean dago. Ume bakoitza ezberdina da eta ikasgela bakoitza mundu bat. Irakasleak jakin behar du hori guztia maneiatzen: begiratu behar du zein harreman klase sortzen den ikasleen artean, nolakoa den ume bakoitzaren sozializazioa, zein indargune dituen eta zein arlotan behar duen errefortzua. Niri ere etortzen zait kezka, bere garaian ez ote nuen nire eskolako umeekin behar bezala jokatu. Askotan erreiritzi bat egiten duzu ikasle batekin eta berekin erreiritzi horren arabera jokatzen duzu. Nahi gabe ere mugatu egiten duzu bere garapena. Zenbat garaitan isilarazi egiten ditugu umeak, justu kontrakoa egin behar denean. Umeekin hitz egin beharra dago, konfliktua zerk sortzen duen beraiekin batera aztertu beharra dago. Konpromiso handia eskatzen du irakasle izateak.

Kometak



MADDI AMIANO
ALLUE
IRAKASLEA

Udako bidaiek badiutuzte momentu goxoak, betirako bertan geratuko zinela sentitzera zaramatzatenak. Dragoi itxurako kometa batek, eta zerua estaltzen duten beste hainbatek, zure haurtzaroko momentu kuttunak oroitarazten dizkizutenak. Konpainia ezin hobean, ilunabarrik ederrenetan, ederrena

ikusituz sentiarazten dizutenak, edota oporretan zaudenaren harrokeria punttu horrekin edozein astakeri esatera ausartzen zarenak.

Baina badira, normalizatzeraren eraman nahi eta ezinezkoak egiten zaizkidan beste hainbat momentu eta leku ere. Nire aitonak buru gainean erabiltzen zuen txapela ederra zen, arraroa zen bera hori gabe

nean. Nire aitonak ez zuen sekula hormigoia bota nahi izan bere etxeko atarian, baina hemen simetriarik gabeko zatitan egindako hormigoia puska eta txapela artean nabil oinez, trafikoari eta kearen ihes-hodiari begiratu eta musukoari beste berrogeialdi bat eman beharko ote diodan pentsatuaz. Nire aitonak ez zuen sekula motorik gidatu, hanka arinak zituen eta zama garraiatu behar zuenerako, astoa bihurtzen zen bere bidelagun.

Eta bien bitartean, Euskal Herrian ikasturtea hastera doan honetan, nire aitonaren garaiko erabakiak hartu nahi eta ezinean dabil lau umeren ama, hiriko zalapartatik zertxobait urruntzen den plaza perpendikular batean eserita. Eta bi hatzekin begiak zantzen dituen bitartean horrela dio ahopeka: «Ez dakit zaharrena den Norak lagunduko ote lidakeen soron, eta gero nork salduko lukeen han jasotako produktua, eta zer bik joan beharko luketen eskolara...». Eta ezin erabaki dabil.

«Distantzia berberera dauden tamaina eta kalitate bereko bi fardoen artean erabakitze ezintasunagatik gosez hil zen astoa»

ikustea. Ttak, beti buru gainean ongi ipinita. Baina, ez naiz sekula kutsaduraren txapelera oroitzen. Eguzki izpiak nolabait sumatu daitezke, ilargia ezin jakin zer distantzian dagoen eta izarrak eta tartekako izar uxoren bat ez dira lurzoru hauetako paisaiaren antzezleku. Eta Drexler abeslariaren kantuak dioen moduan glaziarrek agurtzeko beldurra sumatu dut bat-batean: «*Encontremos la manera de despedir a los glaciares... (bis)*». Kantua burutik kendu nahi eta ezi-

Eta aitonak txikia zenean kontatu zion Buridan astoaren dilema artean sentitu da ama, bat-batean. Zeren, distantzia berberera dauden tamaina eta kalitate bereko bi fardoren artean erabakitze ezintasunagatik gosez hil zen astoa. Eta asto sentitu da ama, eta duintasun apur bat atera eta Ramari eskolan hasiko dela esan dio amak. Beste hirurak amari begira astoaren pareko aurpegia jarri duten bitartean.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

Hello!

Bonjour!



MATRIKULA OFIZIALA 2023-2024

Frantsesa A1 – A2 – B1 – B2.1

Ingelesa A1 – A2 – B1 – B2.1* – B2.2* – C1*

*Ikastaro erdipresentzialak ere

MATRIKULA ZABALIK

GUTXIENeko ADINA

Frantsesa: 14 urte 2023an betetzea

Ingelesa: 16 urte 2023an betetzea

PREZIOA:

72,36€

Ikasturte osoa

www.eitolosaheo.hezkuntza.net
info@eitolosaheo.net · 943 69 75 60

Lacunza
INGELES A ET A FRANTSESA

MATRIKULA IREKIA!

www.lacunza.es | 943 46 47 00



Hobetu zure hizkuntzak

- **Banakako jarraipena**
Ikaslea da protagonista
- **Irakasle trebatuak**
Esperientzia eta formakuntzadunak
- **%100 hizkuntzan**
Metodologia komunikatiboa
- **Emaitzak**
B2 First, C1 Advanced, C2 Proficiency

Udara eta kurtso hasiera



ASIER AIERBE
GAZTE
LANGILEA

Irailarekin batera iritsi da kurtso berrira begira jartzeko unea, baina horren aurretik udara izan denari begiratzea dagokigu. Guztiontzat deskantsurako, aisiarako eta festarako unea izan behar zena, ez da hala izan gizarteko sektore guztientzat.

Gazte askok eta askok udarako tarte hau balia-tu behar izan dute urtean zehar izango dituzten

gastuei aurre egin ahal izateko dirua lortzeko; izan ere, ikasketak aurrera eramateko behar diren gastuak, independizatzeko behar den gaitasun ekonomiko altuak, zein eguneroko bizitzaren etengabeko garestitzeak gazteon gaitasun ekonomikoa asko murrizten du.

Hau horrela, asko dira presio horrek bultzatuta lan-baldintza kaxkarrak onartzera behartuak. Lan ordu pila, etengabeko ordutegi aldaketak edota presio ikaragarriarekin lanean aritu behar izan dutenak, guztia soldata exkax baten truke. Adibide asko izan ahal ditugu udarako enplegu gisa; ostalaritzako kasua da garbiena, baina badira beste adibide asko: udarako ikastaroak ematen, hoteletan, udaleku zein ludoteka gisarako espazioak.

Eta horrela, ustez deskantsu, aisi eta gozamenerako zen oasi hau bukatzearekin batera kurtso hasierara begira jartzen gara denok, baina udarako esfortzu hauen guztien ondoren ez da hobera joango gehienontzat. Ikasketak aurrera eramaten ari diren gazte askok eta askok urte osoan zehar jarraitu beharko dute lan partzialak eta ikasketa prozesua bateratzen. Beste askok lan egonkor baten bila jarraitu beharko dute, edota praktiketako kontratuak amaitzean lanean jarraitzeko aukera izango dute zain. Horren guztiarekin norberak bere bizitza antolatu eta disfrutatzeke dituen marjinak are eta gehiago murrizten jarraituz.

Azken finean, egun bizi dugun dependentzia ekonomikoak gure bizitza antolatu eta etorkizunera proiektatzeko muga nabarmenak dakartzigu. Dugun denbora libre gutxia gure gozamen eta garapenerako erabili ordez, bizirauteak sortzen dizkigun arazo eta behar ekonomikoak konpentsatzera bideratzera behartzen gaitu. Zoritzarrez, argi gutxi ikus daiteke tunelaren amaieran, prezioen gorakadak, energia zein alokairuen garestitzeak aurrera jarraitzen dute. Gure gaitasun ekonomikoa ordea, geldirik geratzen da behera ez doan kasuetan. Zerbait aldatzen hastea dagokigu argi izpi bat ikusten hasteko.

«Ikasketak aurrera eramaten ari diren gazte askok eta askok urte osoan zehar jarraitu beharko dute lan partzialak eta ikasketa prozesua bateratzen»



saridunak



Betiko ipuinez osaturiko sortak

Atarikideentzat **bi sorta** ditugu

- Juan Mari Senperena (Ibarra)
- Onintza Arriaga (Anoeta)



Atariako bulegoan jaso dezakezue zuen saria



Iragarri zurea gurean

* Atarikideentzat eskaintza bereziak

* Itzulpena eta diseinua doan

publi@ataria.eus / 661 678 818



Adinekoei
segurtasuna eta
irisgarritasuna
ematen dien soluzioa.

Egokitu zure sukaldea zure bizitzara

1.990€*
-tik hasita

Informazio gehiago:
www.solumobel.com
943 96 89 64

*Basic-pack eguneraketa.



altzari egokituen soluzio integralak



AGENDA

OSTIRALA

IRAILAK 8

ALKIZA

FESTAK. MOZORRO EGUNA

11:00. Kulkiren eskutik jolasak, ume eta gaztetxoentzat.
14:00. Jubilatuen bazkaria.
16:30. Herriko beteranoen arteko pilota txapelketako finala.
Ondoren. Mozorro playback aktuzioak.
21:00. Barrikote afaria eta bingoa.
23:00. Mozorroen sari banaketa.
23:30. Arima diskofesta.

BEDAIO

FESTAK

11:00. Meza nagusia.
Ondoren. Hamaiketakoa Abaetxen, herriko trikitilariak alaitua.
14:00. Jubilatuen bazkaria.
18:00. Amezketako dantzarien emanaldia.
Jarraian. Tortilla patata lehiaketa
21:00. Zahagi ardoa.
Ondoren. Elustondo Anai-Arrebak goizaldera arte.
Goizaldera. Baratxuri-zopa eta txokolatea elkartean.

ELDUAIN

FESTAK

11:15. Ezkilak.
11:30. Meza nagusia.
12:30. Hamaiketakoa musikaz alaituta.
17:00. Txupinazoa buruhandi eta xexenarekin.
Ondoren. Herri kirolak: Elduain vs. Elduain.
18:00. Patata tortilla dastaketa, Izen eta Alabier trikitilariekin.
00:00. Iratzar taldearekin erromeria.



LIZARTZA

FESTAK

10:00. Diana Lzardi txistulari taldearekin.
11:00. Meza nagusia Sagrarioko ermitan.
12:00. Hamaiketakoa ostatuan.
12:30. Puzgarriak eta zezen mekanikoa.
14:00. Haurren bazkaria.
14:30. Helduen bazkaria ostatuan.
15:30. Puzgarriak eta zezen mekanikoa.
18:00. Eskalada eta slackline.
19:30. Kale antzerkia, Siroko.
21:00. Herri afaria.
22:30. Bota irrintzia!
23:00. Zezen suzkoa.
23:00. Erromeria, Bide batez.
02:00. DJ Naza.

ZIZURKIL

FESTAK

11:00. Puzgarriak.
14:30. Gazte bazkaria.
17:30. Elektrotzaranga, herrian zehar.
17:00. *Indartsuak*, haurrentzako zirku ikuskizuna, Aurrera plazan.
Ondoren. Txokolatada, Aurrera plazan.
19:00. Buruhandiak, Joxe Arregi plazan.
22:45. Suzko zezena.
23:00. Kontzertuak: Mad Muasel eta Dupla.

LARUNBATA

IRAILAK 9

ALEGIA

TXAPELKETA

Bertako igogailuak 3. saria.
09:30. Infantilak.
Intxurre-Aizkorri Goierri.
11:15. Gorengo jubenilak.
Intxurre-Segura Goierri.
15:00. Ohorezko kadeteak.
Intxurre-Aizkorri Goierri.
17:15. Jubenilak 1. maila.
Intxurre-Segura Goierri.

ALKIZA

FESTAK

10:30. Haurren txirrindulari lasterketa.
17:00. Herri kirolak, herriko gazteen artean, herrian falta diren gazteen omenez.
Ondoren. Sagardo dastaketa.
23:00. Herri kirol saioa.
Ondoren. Laiotz taldea.

AMASA-VILLABONA

DIRU BILKETA

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartek bideratutako diru bilketa.
Goizean. Udaletxeko plazan eta Kaleberri plazan.

AZOKA

09:00-14:00. XVIII. Irrintzi Azoka Berezia.

Dastaketa, erakusketa eta produktuen salmenta. Isats gisatuaren lehiaketa. Errebote plazan.

AMEZKETA

TAILERRA

11:00-13:00. Zaldiketara gerturatzeko tailerra. Edurne Barriola eta Gaxpi eta Sarota sonoterapeutekin. 25 euro. Informazioa: 646 03 59 58. Goienetxe baserrian.

BEDAIO

FESTAK

17:00. Ume jolasak frontoian.
19:00. *Kontu eta kantu* ikuskizuna haurrentzat, Maider Alcelay eta Igor Salaren eskutik.
21:00. Herri afaria.
Ondoren. Ansorregi eta Larrañaga eta Izer eta Alabier trikitilariak goizaldera arte.
Goizaldera. Baratzuri-zopa eta txokolatea elkartean.

BIDANIA-GOIZATZ

USAKUME TIROKETA

Usakume tiroketa, *colombaire* tresnarekin. Euskadiko kopa.
10:30-13:00 eta 16:00-17:30. Taberna eta kartutxo zerbitzua izango da.

ELDUAIN

FESTAK

11:00. Jolasak haur eta gazteentzat.
13:00. Toka herrikoia.
14:00. Herri bazkaria.
15:30. Puzgarriak eta apar festa.
18:00. *Frontona* ikuskizuna, Andoni Egañarekin.
Ondoren. Txapela jaurtiketa.
19:30-21:00. Distopia elektrotzaranga.

00:00-01:30. Distopia elektrotzaranga.

01:30-04:00. DJ EO.

IBARRA

MENDI DUATLOIA

12:00. Bidetxur Mendi Klubak antolatzen duen Ibarrako Piparra XIII. Mendi Duatloia

LIZARTZA

FESTAK

10:00. Diana Lizartzako gaiteroekin.
11:00. Erraldoi txikien erakusketa.
12:00. Lizartza eta Amaroizko erraldoi eta buruhandien kalejira gaiteroen laguntzarekin.
17:00. Pilota partidak.
 Kadeteak: Perurena-Olano / Gaztañaga-Caminos.
 Lehen maila: Jaka-Iztueta / Artola-Morgaetxebarria.
19:00. Sagardo eta pintxo dastaketa.
Jarraian. Herri argazkia.
19:30. Erroneria Trikidantz.
21:00. Harakno Streetfood.
23:00. Zezen suzkoa.
00:00. Erromeria, Trikidantz.

TOLOSA

AZKEN BEHERAPENAK

Dendek azken maukak aterako dituzte kalera.

KULTURA PLAZARA

18:30. *Gazte* ikuskizuna Hika Teatroaren ekoizpena da, Oinkari Dantza Taldearekin elkarlanean sortutakoa. Kaleko ikuskizuna da, gazteek sortutakoa, eta publiko guztiari zuzendua. Euskal dantza tradizioaletik abiatuta, dantza garaikidearen eta bestelako dantza modernoen munduraino zabaltzen da, ahotsari eta testuari lekua emanez. Plaza Berrian.

ZIZURKIL

JAIK. MOZORRO EGUNA

11:00. Umeen jolasak.



12:00. Buruhandiak.
12:30. Apar festa.
14:00. Bernarderen herri bazkaria.
16:00. Postre lehiaketa.
17:00. Bingo musikatua.
Ondoren. Helduentzat jolasak.
20:00. Dantzaldia Muxutruk erromeriarekin.
22:00-00:00. Photocalla. Mozorro lehiaketan parte hartzeko argazkia atera beharko da bertan.
23:30. Muxutruk erromeria.
00:15. Mozorro lehiaketako sari banaketa.
Ondoren. DJ Zigordz.

IGANDEA

IRAILAK 10

ALEGIA

MENDI IRTEERA

09:00. Intxurreren eta Mendi Asanbladaren Zelatungo erromeriara egun pasa. Autobusa prestatu dute.



ALKIZA FESTAK

10:00. Meza.
11:00. Haurren pilota partidak.
17:15. Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Oihana Iguaran, Sebastian Lizaso, Nerea Ibarzabal eta Andoni Egaña. Gai jartzailea: Amaia Agirre.
Ondoren. Laja eta Narbaiza trikitilariak.
Bitartean. Eko Talo egongo da, taloak saltzen.

AZOKA

11:00. Plazan, artisau azoka. Limoi arroxak kosmetika naturala, Kimuri haori eta gyotaku, Balerdipeko erlauntzatik ateratako produktuak, Felix Munduan moda arropa, Sualma egurrezko jostailuak, Hazi eta Hezi eskuz egindako ehungintza-sorkuntza, Biak Bat pitxiak, Muri eta Paki pintura abstraktua eta Artesanias Bouchra marroki gozokiak.

BEDAIO FESTAK

11:00. Meza nagusia.
12:30. XXXI. Bedaioko Txirrindulari igoera.
18:00. Herri kirolak. Aizkolariak: Nerea Arruti eta Nerea Sorondo. Harri jasotzaileak: Jon Goenatxo eta Jokin Eizmendi.
Jarraian. Bedaioko Ingurutxoa.
20:30. Afaría Artubi elkartean (mondejua eta ardi gisatua).
00:00. Bedaioko jaien amaiera.

ELDUAIN FESTAK

12:00. Herriko haur eta gazteen pilota partidak, eskuz eta erraketaz.
12:00. Hamaiketakoa, sardina, Ibarako langostino, txorizo, txakolin eta sagardoarekin.
18:00. Mute zirku ikuskizuna.
19:00. Txokolatea, barrenak goxatzeko.
19:30. Falkoneria, Basabereaken eskutik.

LIZARTZA FESTAK

11:00. Diana Lizardi txistulari taldearekin.
11:30. Haurren arteko pilota partidak.
12:30. Dantza soka.
13:00. Otsolar dantza taldearen emanaldia.
16:30. Mus txapelketa herrikoia plazan.
17:00. Ohe elastikoak, apar festa eta aurpegia margotzea.
19:30. Bertso saioa. Amets Arzallus, Beñat Gaztelumendi, Maialen Lujanbio eta Nerea Ibarzabal. Gai jartzailea: Amaia Agirre.

TOLOSA KONTZERTUA

18:30. Olaia Toral, 3 tabernan.

TOLOSALDEA ZELATUNGO ERROMERIA

12:00. Erromeria, Aitziber Arruabarrena eta Aritz Erasunen eskutik.

ZIZURKIL FESTAK

07:30. Diana.
11:00. Sardina eta sagardo dastaketa, Urkamendi elkartearen eskutik.
12:45. Herriko Bukalai dantza taldearen euskal dantza emanaldia.
16:00. II. Xake eta XIII. Joxe Arregi mus txapelketa.
16:30. Erraldoi eta buruhandien konpartsa, Zizurkilgo Erraldoi eta Buruhandien taldearen eskutik.
19:30. *Komedia Showa* Antton Telleria, Ana Goitia, Iker Plazaola eta Julen Portilloren eskutik.
22:00. Kontzertua Andoni Ollokiegiren eskutik.

ASTELEHENA IRAILAK 11

TOLOSA

BIBLIOPORRAK

10:00-13:30. Biblioporrak txokoa 0-16 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendutako ipuin eta liburuz osatuta dago eta haur liburutegiko 3. solairuan egongo da iraileko azken egunera arte.

ELKARRETARATZEA ETA MANIFESTAZIOA

12:00. Tolosaldeko jubilatua eta pentsiodunek elkarretaratzea eta manifestazioa antolatuta dute udako etenaren ondoren. Dei berezia egin diete emakumeei ekintzetan parte hartzeko; izan ere, «haiek baitira kaltetuenak». Udaletxe aurrean egingo dute elkarretaratzea.

ESKULTURAK BATU DITUEN BI HERRI

Herbehereetako eta Euskal Herriko 57 eskulturagileren lanak bildu ditu 'Zizelkatzen mugarik gabe' erakusketak. Bi herrialdetako lau elkartek abiatu dute elkarlana, mugaz gaindiko artisten obrak ezagutarazteko; urrian zortzi euskal eskulturagilek bidaiatuko dute Herbehereetara.

Jon Miranda

Euskal Herriko Azken Muga eta Euskuahaldunak eta Herbehereetako Leersumgo Kunstgilde eta Utrechteko Stichting elkarleen arteko lankidetzaren emaitza da urriaren 7ra arte Tolosako Aranburu jauregian ikusgai izango den *Zizelkatzen mugarik gabe* erakusketa. Bi herrialdeetako 57 eskultoreen obrak jaso dituzte bertan eta behin Tolosakoa amaituta, urriaren 12tik azaroaren 5era Herbehereetako Den Dolder herrian ikusgai izango da erakusketa hau bera. Guillermo Olmo (Zugaztieta, Bizkaia, 1960) Eus-

kuahaldunak euskal eskultoreen elkarteko presidentearen arabera urte asko dira eskulturagile euskaldunak elkarrekin Europara ateratzen ez direla. «Egin ditzagun harremanak Europako beste herrialdeekin, hori baita bidea herri honetan eskulturak izan duen garrantzia berreskuratzeke», esan du Olmok.

Iritzi berekoa da Uxue Lasa (Getaria, Gipuzkoa, 1984) eta sinistuta dago euskal eskultu-

ra aro berri batean sartuta dagoela: «Oteiza eta Txillida oso ondo daude, baina orain beste mugimendu batzuk badaude, eta uste dut kanpoan erakutsi behar dugula zer egiteko gai garen». Olmo eta Lasarekin batera, beste hainbat euskal eskultoreen lanak bildu dituzte *Zizelkatzen mugarik gabe* erakusketan. «Garai bateko artista handien itzalpean jarraitzen dugu, baina tendentzia berriak eta lan egiteko modu berriak ditugu gaur egun. Lehen eskultoreena oso gizonen lanbidea zen, eta orain emakume

gehiago gabilta. Kostatzen zaigu jende gaztea animatzea, baina euskal eskultoreen elkartearekin indarrak batu nahi ditugu jendea gerturatu dadin», nabarmendu du Lasak.

Ikusgai diren obretako baten egilea da Angel Navas (Tolosa, 1960). Berariaz sortu du eskultura erakusketa honetarako eta Agote izenburua jarri dio. Egurrez, burdinez eta ez-tainuz egindakoa da eta eskuz landutakoa. Eskulanaren ga-

57 Eskulturagileren lanak Aranburun

Herbehereetako 17 artisten lanak izango dira ikusgai egunotan Tolosan, bina eskultura ekarri dituzte moztan erakusteko. Gainerako lanak euskal eskulturagileenak dira.

rrantzia azpimarratu du eskultore tolosarrak: «Belaunaldi berriak ibili badabiltza, baina ikus-entzunezko lanak egiten dituzte gehienbat. Teknologia asko baina eskulan gutxi. Lehengo ofizioak bukatzera doaz». Navasi materialak nahastu eta probatzea gustatzen zaio, materialak manipulatzeko. Esperimentatzeko modu hori belaunaldi berriei transmititu nahi die, eta Euskuahaldunak elkartearen bitartez saiakera horretan dabiltzala esan du.

Lasak ere osatu du eskultura erakusketa honetarako: harriarekin eta eskaiolarekin egindako obra bat da. «Zerbait ezberdina egiten saiatzen naiz beti, nahiz eta horrek berekin arriskua ere badakarren. Nik, ordea, horrelaxe



disfrutatzen dut. Normalean eskultura ez da oso ekologikoa izaten, erretxinak eta material kutsakorrak erabiltzen dira, eta ni saiatzen naiz, ahal den neurrian, eskultura jasangarriagoa egiten». Lasak bezala, harria erabili dute Herbehereetatik etorritako eskulturagileetako askok. Arreta eman dio horrek artista gipuzkoarrari: «Emakume gehienek harriarekin egiten dute lan eta hemen hori ez da ohikoa izaten. Gainera harri mota ezberdinak lantzen dituzte. Oso ikusgarriak dira horietako asko, marmol berde eta urdinak ikusi ditut, baita alabastroa ere. Harrigarria egin zait nola lantzen duten harria, eta azpimarratzekoa da eskulturagile gehienak adin batetik aurrerakoak direla».

Herbehereetatik ekarritakoak landuta dauden eskulturak dira, Navasen hitzetan. «Ikusten da atzetik badutela prozesu bat. Gauza oso onak eta politak ekarri dituzte, mezuz beterikoak». Eskulturagile tolosarrak ere bere eskulturarekin mezu bat zabaltu nahi izan du: «Agoteek harria eta burdina lantzen zituzten eta horregatik erabili dut material hori eskultura honetan. Haien mundua ezagutzera eman nahi nuen. Bide batez, gaur egungo etorkinekin ere alderatu nahi nuen agoteen bizimodu hori, etorkinei askotan haiei ematen zaien tratu berdina egiten zaielako». Bihotzetik ateratzen zaion bezala lan egiten duela dio Navasek.

Hori bera uste du Huibert Straus Herbehereetatik Tolosara etorritako eskulturagileak: «Lan hauek ikusten da bihotzarekin eginak direla. Artista batek aisa ikus dezake lan bat bihotzarekin egin dagoen edo besterik gabe, teknika-rekin. Ikusten da artistek euren arimaren parte bat jarri dutela obra hauetan». Txilen jaiotakoa, Latinoamerikan hazitakoa, 14 urte zituenetik bizi da Herbehereetako Leersum hirian eta Kunstgilde elkarteko kidea da Straus. Duela urtebete Iruñean oporretan zela egin zuen topo Euskuahaldunak elkartekok Ziu-

dadelan jarritako erakusketa kolektiboarekin. «Hura ikusi eta zerbait egin behar genuela jarri zitzaidan buruan. Harremanak hasi eta oso hunkigarria da ikustea nola gauzatu diren gure asmoak». Berarekin batera, Euskal Herrian da Betty Nijman eskulturagile nederlandarra. Datozen egunotan, beste hainbat lagun iritsiko dira Herbehereetatik.

Tartean izango da Else Ringnalda (Amsterdam, 1988) artista. Bere obra giza irudian oinarritzen da eta brontzezko eskulturak egiten ditu. Bere lanak ingurune naturalean ezartzen ditu, gehienetan uretan. Herbehereetan obra publikoak jarrita dauzka laku eta urmaeletan. *Zizelkatzen mugarik gabe* egitasmoaren barruan, bere eskulturak Tolosara ekarri ditu Ringnaldak eta Oria ibaian jarri zituen, Zerkausiaren parean. Iragan asteburuan izandako denboralearen ondorioz baina, eskultura hauek eraman zituen ibaiaren urak. Eskultura bat galduta dago momentuz eta gainontzekoak berreskuratu badituzte ere, momentuz ez dituzte berriro kokatu.

Straus, Nijman eta Ringnaldak aurtengo Azken Muga jaialdian parte hartuko dute.

Euskal eskulturagileak gehiago izanik, erakusketa orekatzeko, Herbehereetako artista bakoitzak bina obra jarri ditu *Zizelkatzen mugarik gabe* erakusketan. Strausek ere bi ekarri ditu. Haietako batekin kritika soziala egin nahi izan du. «Qatarren ospatutako Munduko Futbol Txapelketaren harira oso baldintza kaxkarretan aritu zirela estadioak eraikitzen. Horregatik olibondoaren egurra hartu dut langile horiek iruditatzeko eta FIFArekin logoa izan litekeena jarri diot bizkar gainean, zama bat bailitzan», esan du Strausek.

Tolosako Udalak ere, ongi-etorria egin nahi izan die Herbehereetatik etorritako artistei. Udalaren izenean Andu Martinez de Rituerto alkateak esan du arteak muga kultural eta linguistikoak gaunditzeko ahalmena duela: «Arteak ez du mugarik, ez fisikorik, ezta sormenari dagokionik ere. Erakusketa hau da horren lekuko, bi herrialde lotzeko balio duen ekimena da». Erakusketaren antolakuntzan jardun duten lau elkar-teei eskerrak eman dizkie alkateak eta egindako lanagatik zoriondu ditu erakusketako 57 artistak. «Ja-

«Hau da bidea, herri honetan eskulturak izan duen garrantzia berreskuratzeko»

GUILLERMO OLMO

«Teknologia asko baina eskulan gutxi; lehengo ofizioak bukatzera doaz»

ANGEL NAVAS

«Ez baditugu gauzak gure artean elkarbanatzen ez gara pertsonak»

HUIBERT STRAUS

«Eskultoreena oso gizonezkoen lanbidea zen, orain emakume gehiago gabiltza»

UXUE LASA

rrai dezagula harremanak egin eta artearen bitartez ikasten», esan du Martinez de Rituertok.

Olmok nabarmendu nahi izan du Tolosak garrantzia handia duela euskal eskulturgintzaren barruan. «Tolosako Ekinbide Etiketetik abiatu zuten bideari esker, ibilbide eskultoriko paregabea dugu, herri gutxi duten ondarea pilatzen da hemen. Euskal eskulturgintzak bizi duen aro berri honetan ere, Tolosa erdiguneari egotea nahi genuke», esan du Euskuahaldunak elkarteko presidentek.

Zortzi urte dira Azken Muga elkarteak sortu eta Be-daion, Zaraten, jaialdia antolatzen dutela urtero. Bertan abiatutako dinamikaren ondorioz sortu zen Euskal Herriko eskulturagileak batzen dituen elkarteak. «Harro egoteko moduan gaude», esan du Olmok. Aurrera begira, Azken Muga eta Euskuahaldunak elkartetik ekimen



ERAKUSKETA

URRIAREN 7RA ARTE

17:30 - 20:30. Asteartetik larunbatera ikusgai izango da erakusketa Tolosako Aranburu jauregian.

IRAILAK 14 OSTEAGUNA

19:00. Bisita gidatua erakusketan zehar. Alaitz Artola musikariak saioa eskainiko du Aranburu Jauregian.



gehiago iragarri dituzte euskal eskulturgintzari bultzada emateko.

Urrian Herbehereetara

Joan-etorriko bidaia izango da *Zizelkatzen mugarik gabe* erakusketak egingo duena. Urriaren 7ra arte egongo da Tolosako Aranburu jauregian erakusketa,

eta ondoren, obra guztiak bildu eta zortzi euskal artistek Herbehereetako Den Dolder herrira joko dute. Erakusketa hau bera bertan jarriko dute urriaren 12tik azaroaren 5era. Strausek nabarmendu du euren elkartearen egoitzan hainbeste lan biltzeko tokirik ez zutela, baina espazio handiago bat lortu dutela erakusketa hau patxadaz ikusi ahal izateko. «Pozez txoratzten hartuko ditugu hemengo artistak, eta saiatuko gara guri hemen egin diguten harreraren parekoa egiten», aipatu du eskulturgile nederlandarrak.

Herbehereetara bidaiatuko duten artisten artean daude Olmo, Lasa eta baita Navas bera ere. Azken honek gogoia du hara joateko eta bertako artistekin harremanak egiteko. «Gure eskultura mundura zabaldu nahi dugu, bestela hemen ghetto batean bezala sartuta geratuko gara». Eskultura unibertsala da, hala ere, Strausen esanetan: «Garrantzitsua da munduan zehar libre bidaiatu ahal izatea, eta gure sentimenduak libreki adierazi ahal izatea. Hippy zahar bat naiz ni eta horrelako ekimenek bihotza betetzen didate. Elkarbanatzea da bizitzaren funtsa, ez baditugu gauzak gure artean elkarbanatzen ez gara pertsonak. Horrek egiten gaitu gizaki».

Esperientziak eta artea partekatze aukera izango da, beraz, urriaren 7ra bitartean Aranburu jauregian. Asteartetik larunbatera ikusgai izango da *Zizelkatzen mugarik gabe* erakusketa, 17:30etik 20:30era. Irailaren 14an, halaber, bisita gidatua eskainiko da erakusketan zehar eta parte hartu duten artisten azalpenak entzuteko aukera izango da. Gainera, Alaitz Artola musikariak girotuko du ekitaldia.

Aranburu jauregian ikusgai den erakusketan bildutako eskulturak. **J. M.**



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Antzeko giroa. Goizean ostarte zabalak izango dira eta giro ederra nagusituko zaigu, nahiz eta, tarteka erdi eta goi-mailako hodei batzuk ikusi. Arratsaldean zehar berriz ere bero-hodeiak garatuko dira eta ez da baztertzen azken orduetan berriz ere barnealdetik ekaitzen bat sartzea. Beste egun batez jarraian hego-ekialdeko haizea nagusituko da eta tenperatura antzeko kokatuko da, 28-31 graduan joaz goia.

LARUNBATA

Goizean eta arratsaldeko lehen orduak arte zeruan erdi eta goi-mailako hodei batzuk ostarteekin tartekatuko dira, baina ostarteak nagusi izango dira eta giro ederraz gozatu ahalko da. Arratsaldeak aurrera egin ahala ordea, berriz ere barnealdetik barrena bero-hodeiak garatuko dira, azken orduetan ekaitzen bat lehertzea baztertu gabe. Hego-ekialdeko haizearen eraginpean jarraituko dugu eta tenperatura 28-32 graduan kokatuko da.

IGANDEA

Oso antzeko giroa. Goizean eta arratsaldeko lehen orduak arte erdi eta goi-mailako hodei batzuk ikusiko dira, ostarteekin tartekatuta. Hala ere, giroa argia eta eguzkitsua izango da. Arratsaldean zehar bero-hodeiak garatzen joango dira eta azken orduetan ez da baztertzen ekaitzen bat lehertzea, nahiz eta, aukera txikia izango den. Hego-haizeak joko du eta tenperatura zertxobait jaitziko da, 27-30 graduan joaz goia.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

17€

51€

56€

Atarikideek

13€

36€

42€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

IRAILAK 8, OSTIRALA

TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korreo kalea, 20.
943 67 60 13.

IRAILAK 9, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korreo kalea, 20.
943 67 60 13.

IRAILAK 10, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Edurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRAILAK 11, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Oskar Etxebeste Etxarri.
Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.

EGUNERO

GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:
TOLOSA.

LEIRE ANDRES MORANT.

ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.


atarikideen abantailak



**EHUN
FISIOTERAPIA**
%10eko
deskontua



PANTTA
Ardoa opari



**TXINDOKIKO
ITZALA**
%10eko
deskontua



SOLUMOBEL
100 euroko
deskontua



SABERRI
%15eko
deskontua



**EIZMENDI
ANAIK**
%15eko
deskontua



**GARAZI
LORADENDA**
Lore sorta
opari



ATARIA
Deskontu
bereziak



BASAJAUN
Deskontu
bereziak



**MULTIOPTICAS
TOLOSA**
%15eko
deskontua



**SENA
MASAJE ZENTROA**
%10eko
deskontua



**OREXAKO
OSTATUA**
%5eko
deskontua



Komertzio, taberna edo enpresa bat duzula eta
abantailak eskaini nahi dizkiezula Atarikideei?
Jarri gurekin harremanetan: publi@ataria.eus



ataria.eus/kideak

Udal Euskaltegiak. Publikoak, irekiak, guztiontzat.

MATRIKULA ZABALIK

Matrikulazio epea irailaren 1etik 21era
09:00-13:00 · 16:00-19:30

IKASTAROAK

- AURREZ AURREKO IKASTAROAK ETA AUTOIKASKUNTZA
- HABE eta IVAPen titulu ofizial guztiak prestatzeko aukera
 - ETORKINENTZAKO IKASTARO BEREZIAK (AISA)
- TALDE BEREZIAK ESKOLA-UMEEN GURASOENTZAT
 - MINTZATALDEAK

MODULU ETA ORDUTEGI ZABALAK
%75 bitarteko DIRULAGUNTZAK



TOLOSAKO
AITZOL
UDAL EUSKALTEGIA
Rondilla kalea, 34-B, 3.a
943 65 10 06
aitzolue@tolosa.eus



AITZOL
Udal Euskaltegia

2023 - 2024
MATRIKULA
epea zabalik